

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2002

EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRA



EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN 2002. URTEKO AURREKONTU OROKORREN LEGE AURREGITASMOA

Vitoria –Gasteiz, 2001eko urriak 23

GURE EKONOMI GARAPENAREN SENDOKETA ETA EUSKAL GIZARTE KOHESIOAREN INDARKETA, EURO-A INDAR BETEAN SARTUKO DEN URTERAKO

Gaur ospatu den bileran Gobernu Batzordeak Euskal Autonomi Erkidegoko 2002. urteko Aurrekontu Nagusien Lege Aurregitasmoa onartu du. Datozen egunetan, Gobernuak Eusko Legebiltzarrari Lege Aurregitasmoa aurkeztuko dio.

Datorren urtarrilaren 1-ean , **Euro-a** , **Europako moneta bakarra, indarrean sartuko da**, Ekonomi eta Moneta Batasunaren azken txanpari amaiera emanez.

Estatu Batuak eta Japon-ekin batera, Europa munduko ekonomiaren erreferentzi dugu. Halaber historiaren azken urtetan ez da ekonomiaren hazkunde gunean soilik bihurtu, ongizate, solidaritate, giza kohesio eta aurrerakuntza gunean baizik.

Bi hitzetan esanda, aipatu dugun garapen eredu europarra Eusko Jaurlaritzak aukeratu duen hiru norabideekin bat dator; hau da, **Euskadiko ekonomiaren hazkunde, euskal gizartearen kohesioa, eta baliabide eta ingurune sistemaren erabilpen finkoarena**; eta, Euroak dakarren aldeona, hain zuzen ere, hiru aukerabide hauen sendoketa izango da.

Azken urtetan, gizartearen ahalegina eta Euskal Administrazioen politikak ere lagundu duen esfortzuari esker, gure ekonomiak azpimarratzeko parametroak lortu ditu:

- Azken hamarkadan Euskadiko Barne Ekoizkin Gordina, Espainakoaren eta Europako Batasunaren batez besteko BEGren gaineratik gehitu da. Espainikoarena baino %9 gehiago eta Europako Batasunarena baino %17 gehiago.
- Azken garaian Euskadik Europako Batasunaren batez besteko “per capitaren” errenta gaitzetea lortu du.
- Ekonomiaren hazkunde honi esker, garai berean, 150.000 lanpostu garbi sortu dira langabeziaren tasa %50era murriztuz (azkeneko sei urtetan, biztanleria landunaren %25etik, %12,4era).

Hala eta guztiz ere, aurrera segi behar dugu. Lehiakortasunez eta produktibitatez ekonomiaren hazkundera indartu solidaritate, giza oreka, egonkortasun eta lurralde-ongizatearen parametroetan.

Herri gastuari dagokionez, milurteko honetan, Euskadin erreforma egitura eta ekonomiaren eta enpleguaren bultzakadari lehentasuna ematen jarraitu nahi dugu, guztion artean solidarioagoa eta bidezko gizartea eraikitzen jarrai dezagun. Guzti hau, aurrekontuaren orekan oinarrituta Administrazioak ekonomiaren aktibitatearen aurrean antizikliko eta orekadun faktore gisa joka dadin.

Begi bistan dago munduko ekonomia, azken urteetan bizi izan duen hazkunderarekin alderatuz, ziklo berri batera dijoala, non ekonomiak gutxitze leuna sufrituko duen. Argi dago, halaber, gure ekonomiak inguruko ekonomiekin duen elkarlotura; hori ala izan arren, egia da, **Euskadiko ekonomiaren hazkundera finkoa dela , inguruko ekonomien gaintetik dijoala gainera lanpostu berriak ahalbideratzen.**

Zentzu honetan, Euskal Autonomi Erkidegoko 2002. urteko Aurrekontu Orokorren Lege **Aurregitasmoaren helburu** nagusia hauxe da: **gure ekonomi garapenaren sendoketa, Herri Kontu edo Kontu Publiko orekatu batzuetan oinarrituz.**

Horrela, solidaritate, ongizate, bizitza kalitatea eta giza kohesio eta integrazioaren parametroetan neurtzen den bene- benetazko konbergentzia lortzea izango da Eusko Jaurlaritzaren apustua. Hau da, **Europako Batasunako herrialde aurreratuenetan esistitzen den egoera lortzea da gure erronka eta horretarako Lege Aurregitasmoak jasotzen dituen solidaritate eta giza kohesioaren mekanismoen sendoketa.**

Helburu hau lortzeko, Gobernuak sei **mugarrietan oinarrituko** da era berean Euskal Autonomi Erkidegoko 2002. urteko Lege **Aurregitasmoaren filosofia** inspiratzen dituenak.

1. **Aurrekontu orekatuaren tendentzia mantentzea**, aurrekontu-politikak makroekonomiaren egonkortasunari eman diezaioken bultzakada bermatzeko.
2. **Giza-babesketarako herri-gastuaren maila hobetzea**, giza laguntza eskaeren igoera eta populazioaren zahartzapena kontutan hartuta. Egoera honen presioa epe ertainean gehitu daiteke, Osasun, Ongizate eta Giza inserzioa eta Familientzako babesean.
3. **Hezkuntza, Prestakuntza eta Enpresa Promoziorako gastuaren igoera**. Gure langabezia tasa eta Europako Batasunaren batez besteko tasaren arteko ezberdintasuna murrizteko helburuarekin, eta bereziki, emakumeen langabeziari dagokion desorekan.
4. **Inbertsio Publikoa mantentzea**: Herri Administrazioak benetazko konbergentzia lortzeko ,eskura duen mekanismo gisa.
5. **Herri Gastuaren norabide berria Euskadi Informazio eta Ezagapenaren Gizartera zuzenduta** (zientzia, ikerkuntza, teknologi

berriak...), arlo honetan Euskadiren maila Europako batz besteko mailara berdintzeko.

6. **Baliabideen diru languntza igoera** industriako ekoizpenaren eraginez kaltetuak izan diren zonaldeak suspertzeko eta lurralde kohesioa lortzeko beharrezkoak diren pausoak aurrera segi dezaten.

Horrela ba, eta helburu hauek lortzeko, Aurrekontu Aurregitasmoa lantzeko kontutan hartu dira Gobernu Batzordeak uztailan erabakitako "Zuzentzaile Ekonomikoak" eta 1999ko urrian Finantza Publikoetarako Eusko Batzordeak onartutako "2000-2003 Egonkortasun eta benetazko Konbergentziarako Erakundeentzako Akordioa" Eusko Jurlaritzak, gaurko bileran, oniritzia eman dio Euskal Autonomi Erkidegoko 2002. urterako Aurrekontu Nagusien Lege Aurregitasmoaren Legebiltzarrerara bidaltzeari.

I 2002.URTEKO AURREKONTUEN MARKOA, FINANTZA-AURREKONTUEN ARABERA (ikus Sailen arabera Dirusarrera eta Gastuen banaketari dagozkion laukiak)

Euskal Autonomi Erkidegoan 2002. urteko Aurrekontu Nagusien Lege Aurregitasmoaren markoa eratzeko, finantza eta aurrekontu ekintzari dagokionez, honako parametro hauek erabili dira:

1. Euskal Autonomi Erkidegoan 2002. urterako **Gastuen Aurrekontua, 5.931,93 milioi eurokoa** (986.990,10 milioi pezetakoa) izango da.

Euskal Autonomi Erkidegoan **Finkatutako Aurrekontua**, Soziedade eta Erakunde Publikoak barne, **6.665,4 milioi euro** (1.109.029,6 milioi pezeta) izango da.

2. Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioak, 2002. Ekitadian, **10,3 milioi euroko** (1.713,9 milioi pezeta) **defizit edo mentsa** izango du operazio ez finantzieroengatik (hau da, dirusarrera ez finantzieroengatik, gastu ez finantzieroak kenduta). Euskal Autonomi Erkidegoaren BGP arekin alderatuz %0,023-a.

Ikus daitekenez, Defizit kopuru muskila izango da eta azken urtetako tendentziak jarraituz, aurrekontu orekatua osatzea lortu dugu oraingoan ere. Orekatua gainera, zorpetzearekiko baliabideen parametroa, eta BGParen eta zorraren arteko ratioaren parametroak kontutan hartzen baditugu.

3. Horrela, Zorpeketarekiko Baliabideen prebisioa 400 milioi eurokoa (66.554,4 milioi pezetakoa) izango da, hau da, Diru-sarreraren %6,74-a.

Ekitaldian zehar **Zor Publikoan** egin beharreko amortizazioa **222,46 milioi eurokoa** (37.014,4 milioi pezetakoa) izango da.

Ondorioz, Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioaren **Zorpeketa Garbia** (Jaulkipenak ken Zorraren Amortizazioa, 2002. urtean, **177,54 milioi eurokoa** (29.540 milioi pezetakoa) izango da.

Hau dela eta, Zor Bizia/BGP ratioak murrizten jarraitzen du, 2000-2003 aldirako Estabilitate eta Benetako Konbergentziarako Erakundeen arteko Akordioan ezarritako irizpideen arabera.

4. Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioak 2002. urtean sortuko duen **Aurrezte Publikoa** (ohiko Sarrerak ken ohiko Gastuak), **747,35 milioi eurokoa** (124.348,4 milioi pezetakoa) izango da.

Zifra hauek ondo adierazten dute Eusko Jaurlaritzak bere gastua kontrolatu eta aurrezteko azken urtetan egin duen ahalegina. Hurrengo ekitaldian lortzen den aurrezte horren bidez, Gobernuaren inbertsioak finantzatuko dira.

II. EUSKADIN GIZARTE BEHARREI ERANTZUTEKO ESTALDURA: BENETAKO BATERATZERAKO BIDEAN BULTZADA BERRIA (ikus Gastuen laukia: 1.000 euroko sailkapen funtzionala eta banaketa)

Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioaren azken aurrekontu ekitaldietan ohikoa denez, bere ahalegin ekonomiko gehienak gizarte beharrei aurre egiteko burutzen dira, horrela, aberastasunaren bidez, aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa bermatu ahal izateko.

Zentzu horretan, Euskal Administrazioaren 2002. urterako **Aurrekontuen Egitasmoak bultzada berria emango die Osasuna, Hezkuntza eta Prestakuntza, Ongizate eta Giza Inserzioa** (oinarrizko errenta, giza dirulaguntzak eta kohesio politikak), **Familientzako babesa, Enplegu Sustapena eta Etxebizitza eskuratzeko languntzen politikai.**

Zentzu honetan, 2002. urteko aurrekontuan, helburu hauek betetzeko zehaztu den diru kopurua **Gastu Orokorraren %70,1 ekoa izan da** (1.000 euroko 701).

Osasuna, Hezkuntza eta Prestakuntza, gizarte kohesiorako politikak (bergizarteratzeko soldatak, giza laguntzak e.a.), enplegua sustatzeko, etxebizitza suspertu eta lortzeko politikak garatzeko **erabiliko den diru kopurua 4.150 milioi eurokoa** (691.000 milioi pezeta) izango da.

III. GOBERNUAREN INBERTSIO ESFORTZUAREN SENDOKETA

Aurreko urtetan, Euskal Administrazioak Inbertsio Publikoetarako eginkizunak sustatu ditu, batez ere, azpiegiturak, industria garapen eta sustapena, eta lurraldetasun kohesio politiketan.

2002. urterako, Gobernuak, giza laguntzarako Gastua gehitzeaz aparte, **Kontu Publikoetan helburu hauetarako** zenbait inbertsio sendotu ditu, aurreko Legealdian martxan jarri dituen **“Euskadi 2003” Ekimenaren planekin.**

Ildo honetan, 2002. urteko Aurrekontuen Lege Aurregitasmoan, **Benetazko Inbertsio eta Kapital Transferentzietako** kopurua (VI. eta VII. Kapituluetan) **792,5 milioi eurokoa** (131.868,6 milioi pezeta) izango da.

Hauekin batera, VIII. Kapitulan, **Entitate Publiko eta Elkarteen Inbertsioak finantzatzeko diru kopurua 175,04 milioi eurokoa** (29.124,8 milioi pezetakoa) izango da.

Vitoria –Gasteiz, 2001eko urriak 23

2002 AURREKONTU PROIEKTUA



ESPARRU MAKROEKONOMIKOA

<u>ESKARIA</u>	<u>2002</u>
Kontsumo Pribatua	2,1
Kontsumo Publikoa	1,8
Inberstsioa (Kapital-eraketa gordina)	4,8
<i>Barne-eskaria</i>	2,7
<i>Kanpo-eskaria (BPGeko Ekespena)</i>	0,2
<u>Eskaintza</u>	
Industria	3,8
Erainkuntza	2,7
Zerbitzuak	2,7
BPGa m.p.	3,0
<i>BPGaren Deflaktatzailea</i>	3,0
Enplegua (%tan)	1,3
Langabezi-tasa (Aldi horren amaieran)	10,4

2002 AURREKONTU PROIEKTUA



DIRU - SARRERA

KONTZEPTUA	Milioika €	Milioika pezeta
FORU ALDUNDIEN EKARPENAK		
Ekarpen Orokorra	3.194,58	531.534,18
Insalud eta Imsersoren Finantzaketa	1.709,44	284.427,27
Ertzaintzaren Finantzaketa	373,94	62.217,90
Beste ekarpenak	0,04	6,91
EKARPENEN GUZTIZKOA	5.278,01	878.186,26
TRANSFERENTZIAK		
Gizarte-segurantzako Transf.	49,20	8.186,86
ENBF Transferentziak	0,36	59,33
Euskal erakundeen Trans.	13,42	2.232,89
EBren egitura-fondoak	37,81	6.291,80
TRANSFERENTZIEN GUZTIZKOA	100,80	16.770,88
BESTE BALIABIDEAK		
Norbere sarrerak	102,79	17.102,16
Zor Publikoa	400,00	66.554,40
BESTE BALIABIDEEN GUZTIZKOA	502,79	83.656,56
KUDEAKETARAKO EGITURA-FONDOAK	50,34	8.376,40
DIRU-SARREREN GUZTIZKOA	5.931,93	986.990,10

2002 AURREKONTU PROIEKTUA




DIRU - SARRERA

KONTZEPTUA	€
FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	
Ekarpen Orokorra	3.194.584.790,00
Insalud eta Imsersoren Finantzaketa	1.709.442.310,00
Ertzaintzaren Finantzaketa	373.937.110,00
Beste ekarpenak	41.530,00
EKARPENEN GUZTIZKOA	5.278.005.740,00
TRANSFERENTZIAK	
Gizarte-segurantzako Transf.	49.204.000,00
ENBF Transferentziak	356.590,00
Euskal erakundeen Trans.	13.419.947,05
EBren egitura-fondoak	37.814.479,58
TRANSFERENTZIEN GUZTIZKOA	100.795.016,63
BESTE BALIABIDEAK	
Norbere sarrerak	102.786.065,46
Zor Publikoa	400.000.000,00
BESTE BALIABIDEEN GUZTIZKOA	502.786.065,46
KUDEAKETARAKO EGITURA-FONDOAK	50.343.177,91
DIRU-SARREREN GUZTIZKOA	5.931.930.000,00

SARRERAK EHUNEKOTAN

Ogasun eta Herri Administrazio Saila



2002 AURREKONTU PROIEKTUA



SEKZIOEN ARABERAKO GASTUA

Ogasun eta Herri Administrazio Sails

SAILA	Milloika €	Milloika pezeta
Legebiltzarra	24,04	4.000,09
Lehendakaritza	20,33	3.382,13
Lehendakariordetza	8,46	1.406,79
Ogasun eta Herri Administrazioa	143,45	23.868,40
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	1.610,71	268.000,09
Herrizaingoa	423,38	70.444,84
Industria, Merkataritza eta Turismoa	273,67	45.534,02
Etxebizitza eta Gizarte Segurantza	178,71	29.734,18
Justizia, Lan eta Gizarte Gaiak	308,71	51.365,19
Osasuna	1.887,76	314.097,33
Kultura	177,80	29.583,93
Lurralde Antolamendu eta Ingurumena	103,86	17.280,85
Garraio eta Herri Lanak	208,59	34.706,12
Nekazaritza eta Arrantza	137,33	22.849,96
Lan Harremanetarako Kontseilua	2,08	345,58
Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1,50	250,08
Kooperatiben Goren Kontseilua	0,69	114,97
Herri Kontuen Euskal Epaitegia	4,93	819,95
Zor Publikoa	329,46	54.817,37
Erakundeen Baliabideak eta Konpromisoak	19,92	3.314,08
Hainbat Sail	66,56	11.074,15
GUZTIRA	5.931,93	986.990,10

2002 AURREKONTU PROIEKTUA



SEKZIOEN ARABERAKO GASTUA

Ogasun eta Herri Administrazio Saila


SAILA	€
Legebiltzarra	24.041.000,00
Lehendakaritza	20.327.000,00
Lehendakariordetza	8.455.000,00
Ogasun eta Herri Administrazioa	143.452.000,00
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	1.610.713.000,00
Herrizaingoa	423.382.000,00
Industria, Merkataritza eta Turismoa	273.665.000,00
Etxebizitza eta Gizarte Segurantzza	178.706.000,00
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza	308.711.000,00
Osasuna	1.887.763.000,00
Kultura	177.803.000,00
Lurralde Antolamendu eta Ingurumena	103.860.000,00
Garraio eta Herri Lanak	208.588.000,00
Nekazaritza eta Arrantza	137.331.000,00
Lan Harremanetarako Kontseilua	2.077.000,00
Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.503.000,00
Kooperatiben Goren Kontseilua	691.000,00
Herri Kontuen Euskal Epaitegia	4.928.000,00
Zor Publikoa	329.459.000,00
Erakundeen Baliabideak eta Konpromisoak	19.918.000,00
Hainbat Sail	66.557.000,00
GUZTIRA	5.931.930.000,00

2002 AURREKONTU PROIEKTUA



SEKZIOEN ARABERAKO GASTUA EHUNEKOTAN

Ogasun eta Herri Administrazio Saila



- Osasuna
- Hezkuntza, Unib., eta Ikerk.
- Herrizaingoa
- Zor Publikoa
- Just., Lan eta G.S.
- Indus., Merkat., eta Tur.
- Garraio eta H.Lanak
- Etxeb., eta Gizar. Gaiak
- Kultura
- Ogasun eta Adm. Publ.
- Nekazar., eta Arrantza
- Lurralde Ant., eta Ingurum.
- Beste

2002 AURREKONTU PROIEKTUA



FUNTZIO-TALDEEN XEHETASUNAK


FUNTZIOA	Milioika €	Milioika pezeta
ZOR PUBLIKOA	329,46	54.817,53
ZERBITZU OROKORRAK	279,78	46.551,48
HERRI BABESA ETA HERRITAREN SEGURTASUNA	416,81	69.351,35
IZAERA SOZIALEKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	4.158,04	691.839,64
EKONOMIAZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	376,71	62.679,27
EKONOMIA-ARAUKETA OROKORRA	21,30	3.544,02
EKOIZPEN-SEKTOREEN ARAUTZE EKONOMIKOA	329,92	54.894,07
BESTE ADM. PUBLIKO BATZUEKIKO FINANTZA-HARREMANAK	19,91	3.312,75
GUZTIRA	5.931,93	986.990,10

2002 AURREKONTU PROIEKTUA



FUNTZIO-TALDEEN XEHETASUNAK EHUNEKOTAN

Ogasun eta Herri Administrazio Saila




2002 AURREKONTU PROIEKTUA




1.000 €en BANAKETA

Ogasun eta Herri Administrazio Sails





Gizar.Ekoizp.:
701 €

Herri Babesa :
70 €



Zor Publikoa:
56 €

Ekonomiazko O.P.:
59 €



Beste : 50 €

Ekoizpen-
sect.Arautze Ekon. :
64 €

